

# Euskarara itzultako bestsellerrak: *The New York Times Best Seller List* zerrendan oinarritutako katalogoa eta azterketa (1990-2020)

—  
AMAIA IZKUE

## Sarrera

Bestseller fenomenoa Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen arren, mundu osoan hedatu da jada gaur egun. Fenomeno nahiko berria dela kontuan izanik, informazio gutxi daukagu euskarara itzultako bestsellerren inguruan, eta, horregatik, aztertu nahi izan dugu ea bestsellerra euskal itzulpengintzaren sistemara ailegatu den, eta, hala bada, zer neurritan. Azterketa deskribatzaile honek Euskal Herriko Unibertsitatean 2021ean aurkeztu eta Naroa Zubillagak zuzendutako Gradu Amaierako Lana du oinarri. Lanaren funtsa guk sortutako katalogo bat da, horrek justifikatzen baititu, hain zuzen ere, lanetik ateratako ondorioak (ikus eranskina). Nolanahi ere, lanari heldu aurretik, buruan izan dugu euskaratutako bestsellerren egoera berezia dela, eta, besteak beste, hiru erronka nagusiri egin behar diela aurre: euskararen beraren egoerari, itzulpengintzaren prestigio faltari eta bestsellerren kalitatearen auziari.

Dena den, katalogoarekin hasi aurretik, ezinbestekoa iruditu zaigu euskal itzulpengintzari dagozkion datu orokorrak ezagutzea, eta, horregatik, Manu Lopez Gaseniren *Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)* (2009) eta Iñigo Satrustegiren *Euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa (2008-2018)* (2020) baliatu ditugu. Bi lan horiek gure katalogoa mugatzen lagundu digute, eta ondorioztatu dugu 1990eko hamarkadatik 2020. urtera bitarteko datuak aztertzea dela aproposena. Horrez gain, bigarren muga bat jarri dugu, literatur generoari dagokionez, eta, sailkapena arazotsua izan daitekeela kontuan hartuta, erabaki dugu saiakera, helduen narratiba eta haur eta gazte literatura aztertzea. Muga horiek zehaztu ondoren, gure katalogoa mundu mailako zerrenda batean oinarritzea iruditu zaigu aproposena;

kasu honetan, *The New York Times*en zerrenda aukeratu dugu, aurrerago azalduko ditugun arrazoiengatik.

Lanaren metodologia azaldu aurretik, egokia iruditzen zaigu bestsellerrari buruzko ideia pare bat argitzea. Termino horrek ez du definizio biribil eta unibertsalik, baina, oro har, esan dezakegu bestsellerra salmenta handiko nobela hibrido eta irakurterraza izan ohi dela, salmenta estrategiak alde dituena. Bestsellerraren kalitateari buruzko auzia interesgarria izan daitekeen arren, lan honetan ez dagokigu gai horretan sakontzea.

## Metodologia

*The New York Times*ek bere webgunean ematen dituen azalpenei esker, jakin dugu AEBko milaka dendak ematen dituzten datu objektiboetan oinarritzen direla zerrenda osatzeko. Horrez gain, zerrenda astero argitaratzen dute, eta generoaren araberrako sailkapena egiten dute; beraz, datuen lagina oso handia dela ondoriozta dezakegu. Halere, zerrenda AEBkoa dela kontuan izanik, badakigu agertzen diren datuak mugatuak direla, AEBko merkatua nahiko hermetikoa baita. Nolanahi ere, zerrenda AEBkoa izateak ez du esan nahi beste herrialde eta hizkuntza batzuetako libururik agertzen ez denik.

Katalogoa osatzeko, 1990etik 2020ra bitartean argitaratutako zerrendak eskuratu ditugu. *The New York Times*ek generoaren araberrako sailkapena egiten du, eta guk *fiction* eta *non-fiction* zerrendak hautatu ditugu. 2000. urtean, HGLari zegokion zerrenda sortu zuten, eta, geroago, beste azpizerrenda batzuk gehitu zituzten; esaterako, *Picture books*, *Children's series* eta *Young adult*. Zerrenda horiek guztiak jaso, eta banaka-banaka aztertu dugu zer liburu dagoen euskarara itzulita. Horretarako, Nor da Nor datu-basea eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea baliatu ditugu.

Katalogoa osatzea lan nekeza izan da: 30 urtetako datuak jaso ditugu; urtean 52 zerrenda argitaratu dira, eta zerrenda bakoitzeko 15 bestseller agertzen dira. Horrez gain, datuen bilketan izan ditugun arazoez ere eragina izan dute gure katalogoan. Izan ere, *The New York Times*eko zerrenda Interneten aurkitzen dugun arren, hutsuneak egon dira zenbait kasutan. Horrek eragin zuzena izan du gure katalogoan; izan ere, hainbat urtetan ez dugu HGLko daturik. Hurrengo atalean aztertuko dugu hutsune horren eragina.

Gure katalogoari dagokionez, honako parametro hauek zehaztu ditugu: bestsellerraren jatorrizko izenburua, itzulpenaren izenburua, idazlea, itzultzailea, itzulpenaren argitaletxea, generoa, bestseller izan zen data (hau da, noiz agertu zen lehenbizikoz zerrendan), jatorrizkoaren argitaratze data eta itzulpenaren argitaratze data. HGLko bildumen kasuan, jarraipeneko edo jarraipenik gabeko bilduma den ere zehaztu dugu.<sup>1</sup>

1. *Harry Potter* jarraipeneko bilduma bat izango litzateke, istorioak hari bati jarraitzen baitio; *Gizajo baten egunkaria*, aldiz, jarraipenik gabekoa izango litzateke, pertsonaiak berberak izan arren liburu bakoitza istorio itxi bat baita.

## Emaitzak

Katalogoa osatu ondoren, lortutako datuak interpretatu ditugu. Guztira, euskarara ekarritako 139 bestseller identifikatu ditugu, eta jarraian azalduko ditugu ateratako daturik esanguratsuenak.

Itzulpen kopuruaren bilakaera kronologian



1. grafikoa. Euskarara itzulitako bestsellerren kopuruaren bilakaera kronologian.

1. grafikoan, euskal itzulpenen kopuruak 1970etik 2020ra bitartean zer bilakaera izan duen ikus dezakegu. Hasiera batean, adierazi dugu 1990-2020 bitarteko datuak jaso ditugula, hau da, *The New York Times*eko zerrenda 1990etik aurrera hasi ginen aztertzen. Hala egin dugun arren, 1. grafikoa osatzeko, itzulpenaren argitalpen urtea izan dugu abiapuntutzat. Kasu batzuetan, liburu bat 1990etik aurrera bestsellerren zerrendan agertzen den arren, gerta daiteke liburua urte hori baino lehenago argitaratzea. Esaterako, *Printze txikia* 1970ean itzuli zen arren, bestsellerren zerrendan 2000. urtean sartu zen, eta, ondorioz, gure katalogoaren barnean dago. Halako kasuak oso bakanak dira, bestsellerren zerrendan berriki argitaratutako liburuak agertu ohi baitira.

1. grafikoa aztertu aurretik, kontuan izan behar dugu *The New York Times*eko zerrendan egon diren gorabeherak. Esaterako, haurren zerrenda bitan desagertu zen Internetetik: 2007ko urtarriletik 2008ko ekainera bitartean eta 2012ko abendutik 2015eko abuztura bitartean. Ezin izan ditugu datu horiek berreskuratu, eta horrek eragin zuzena dauka 1. grafikoan, HGLa baita gehien itzultzen den generoa. Zerrenda hori gabe, nabarmen jaisten da euskaratutako bestsellerren kopurua.

2000. urtetik aurrera, ikus dezakegu grafikoak goranzko joera hartzen duela. Horren arrazoia zera da, 2000. urteko uztailean *Children's best seller* zerrenda sortu zuela *The New York Times*ek. Horrek, grafikoan ikus dezakegunez, zuzenean eragin zuen euskarara itzulitako bestsellerren kopuruan. Horren aurretik HGLa zerrenda orokorraren barnean zegoen arren, ez zen ohikoa liburu salduen artean agertzea.

Nolanahi ere, goranzko joera hori oso gorabeheratsua da, eta, gorakada nabarmen baten ondoren, jaitsiera argi bat gertatu ohi da, 2002an eta 2005ean ikus dezakegun bezala. 2007tik aurrera, gutxieneko bestseller kopuru handi samar bat itzuli da urtero-urtero (2018ko jaitsiera salbu). Hala, 2012a izan zen bestsellerren itzulpen gehien argitaratu zen urtea; 14 itzulpen, hain zuzen ere. Azken urteetan argitaratutako itzulpenen guztizko kopuruarekin alderatuz gero, ikusiko dugu kopuru hori ere batez bestekotik gora egon zela 2012an (Satrustegi, 2020: 158).


Aurretik azaldu bezala, kontuz aztertu behar dugu 1. grafikoa, 2007-2008 eta 2013-2015 tartean HGLko zerrendak huts egin baitzuen. Hori izan liteke 2012tik aurrerako jaitsiera azaltzeko arrazoi bat. Dena den, Satrustegiren lanean ere ikusten dugu 2013an jaitsiera egon zela itzulpenen kopuruan, eta, haren iritziz, «krisiaren eraginez, beharbada, 2013an beherakada nabaria izan zen» (*ibid.*). Beraz, zerrendaren hutsuneak ez ezik, izan liteke krisi ekonomikoak ere eragina izatea 2013ko beherakadan. 2018an beste jaitsiera bat egon zen arren, badirudi bestsellerren itzulpenen produkzioa XX. mendearen amaieran baino nabarmen altuagoa dela azken hamarkadan, oro har. Atal hau amaitzeko, ikus dezakegu 2006tik aurrera egonkortzen dela grafikoa; urte horrez geroztik urtero argitaratu den bestsellerren batez besteko kopurua 7,8 da.

## Literatur generoa

Metodologiaren atalean jada azaldu dugu generoaren sailkapena nahiko konplexua izan daitekeela. Sailkapen klasikoaren arabera, literaturaren barnean narratiba, poesia eta antzerki generoak sartzen diren arren, hartzailearen araberrako sailkapena egitea erabaki dugu, hau da, helduentzat idatzitako literatura eta haurrentzat idatzitakoa.<sup>2</sup> Bestalde, nahiz eta badakigun saiakera oro har helduentzat idazten dela, genero horren berezitasunagatik, aparte aztertzea erabaki dugu. 2. grafikoan ikus daiteke euskarara itzulitako bestsellerren ehunekoa generoka.

Beheko grafikoan, argi ikus dezakegu HGLa dela gailentzen den generoa: % 79. Hau da, HLa halako bost eta saiakera halako hamasei inguru da HGLa. Are gehiago, kontuan hartu behar dugu 2000. urtera arte ez zela *Children's best sellers* zerrenda sortu, eta hurrengo urteetan datu-hutsuneak ere egon zirela. Urte horietako informazioa izango bagenu, litekeena da HGLaren ehunekoa are altuagoa izatea. Horrez gain, itzulitako bestsellerren % 16 helduen literatura da, eta % 5, saiakera. Argitaratutako itzulpenen datu orokorrekin alderatzen badugu, kasu horretan ere, helduen literatura saiakera baino gehiago itzultzen da (Satrustegi, 2020: 152).

2. Bestsellerren kasuan, HLa beti izango da narratiba.



2. grafikoa. Euskarara itzulitako bestsellerren literatur generoa.

Gure datuek, beraz, HGLaren nagusitasuna berresten dute. Horren arrazoia zuzenki dago lotuta HGLaren generoaren ezaugarriekin. Izan ere, haur eta gazteei bideratutako generoa izanik, bi sistemarekin du lotura HGLak: literatur sistemarekin eta hezkuntza sistemarekin, hain zuzen ere. HGLak zuzeneko lotura du haur eta gazteen alfabetatzearekin, eta, beraz, hezkuntza sistemak berariaz bultzatzen duen generoa denez, salmentak gora egiten du. Jatorriz euskaraz idatzitako HGLak ez ezik, genero horren itzulpenak ere gora egiten du, bestsellerren itzulpena barne. Horrek ez du esan nahi haur eta gazteek nahitaez helduek baino gehiago irakurtzen dutenik, baina, hezkuntza sistemaren laguntzari esker, HGLko liburu gehiago saltzen dira. Interesgarria litzateke jakitea ea gazteek, hezkuntza sistemaren bultzadarik gabe, helduaroan irakurtzen jarraitzen ote duten, baina hori lan honen mugetatik kanpo dago. Kontua da, hemen, bestsellerraren itzulpenaren generoari erreparatzen ari garen honetan, generoaren beraren kokapenak eta ezaugarriek azaltzen dutela HGLa izatea generoetan nagusi.

### Idazleak

Aztertu ditugun datuen arabera, 61 idazleri itzuli zaie gutxienez liburu bat euskarara. 1. taulan ikusten denez, soilik bi liburu edo gehiago itzuli zaien autoreen izenak jaso ditugu, beren herrialdeekin batera (21 idazle guztira).

IDAZLEAK <sup>3</sup>			
Idazlea	Liburu kop.	Idazlea	Liburu kop.
Barbara Park (AEB)	18	Suzanne Collins (AEB)	3
Jeff Kinney (AEB)	14	Aprilynne Pike (AEB)	2
J.K. Rowling (EB)	8	Georgia Byng (EB)	2
Megan McDonald (AEB)	8	Ian Falconer (AEB)	2
Rick Riordan (AEB)	8	John Green (AEB)	2
A. de Saint-Exupéry (FR)	4	Khaled Hosseini (AFG <sup>4</sup> )	2
Eric Carle (AEB)	4	L. Frank Baum (AEB)	2
Cornelia Funke (DE)	3	Neil Gaiman (EB)	2
Elena Ferrante (IT)	3	Oliver Jeffers (Australia)	2
Hervé Tullet (FR)	3	Toni Morrison (AEB)	2
Lewis Carroll (Err. Bat.)	3		

1. taula. Euskarara itzultako bestsellerren jatorrizko idazleak.

Aurretik azaldu dugun bezala, *The New York Times*eko AEBko zerrenda bat da, eta AEBko liburu-denden salmentako datuen arabera osatzen da. AEBko literatur sistema hegemonikoa dela kontuan izanik, badakigu hainbat eta hainbat kultur sistematako lanak kanpoan geratzen direla. Goiko zerrendako 21 idazleetatik, 11 dira estatubatuarak, hau da, erdiak baino gehiago. Horrez gain, Erresuma Batuko 4 idazle ditugu, Frantziako 2, Alemaniako 1, Italiako 1, Afganistango 1 eta Australiako 1. Zerrenda honetan guztiak jaso ez ditugun arren, baditugu beste herrialde batzuetako idazleak ere, hala nola Anne Frank nederlandarra, Paulo Coelho brasildarra, Chimamanda Ngozi Adichie nigeriarra, Carlos Ruiz Zafón espainola... Beraz, jatorri anglosaxoieko autoreak gailentzen diren arren, jatorri askotako bestsellerrak dauzkagu euskaraz. Hizkuntzari dagokionez, gehien itzuli diren 21 idazle horietatik, 17k idazten dute ingelesez, hau da, % 80,9k.

Taulan agertzen diren idazlerik oparoenak bildumak idazten dituzten autoreak dira. Barbara Parkek, Jeff Kinneyk eta Megan McDonaldek jarraipenik gabeko liburu bildumak idatzi dituzte; J.K. Rowlingek eta Rick Riordanek, aldiz, jarraipenekoak (azken horren bi bilduma itzuli dira euskarara).

Bestalde, Antoine de Saint-Exupéry-ren *Le Petit Prince* lau aldiz itzuli da; beraz, haren lau euskal itzulpen dauzkagun arren, guztiak liburu berberarenak dira. Gauza bera gertatzen da

1. taulan, gainerako lanean bezala, *The New York Times*eko zerrendan agertutako bestsellerrak soilik hartu ditugu kontuan. Halere, izan liteke taulan agertzen diren idazleen beste liburu batzuk ere euskaraz aurkitzea.
4. Khaled Hosseini sortzez afganiarra den arren, ingelesez idazten du; beraz, jatorri hizkuntza ingelesa duten liburuen artean kokatzen dira haren lanak.

Eric Carlen *The very hungry Caterpillar* (liburu beraren 3 itzulpen) eta Lewis Carrollen *Alice's adventures in Wonderland* (liburu beraren 3 itzulpen) lanekin.

Zerrenda honetan, orokorrean, HGLa idazten duten autoreak dauzkagu, genero hori baita gehien itzultzen dena. Lau liburutik gora itzuli zaizkien autore guztiak HGLa idazten dute. Aurretik azaldu dugun bezala, literatur eta hezkuntza sistemak irakurketa sustatu eta salmentek gora egitea eragiten dute, eta horrek justifikatzen du, neurri handi batean, HGLaren eta genero hori idazten duten autoreen nagusitasuna.

Gure datuak Satrustegik emandako datu orokorrekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu oso autore gutxi daudela bi zerrendetan, hau da, euskarara gehien ekartzen diren egileetatik soilik Ferrante eta Némirovsky aurkitzen ditugu gure katalogoan (Satrustegi, 2020: 157). Alde horretatik, esan dezakegu gure datuak ez datozela datu orokorrekin bat eta bestsellerraren itzulpenak merezi duela berariaz aztertzea.

### Euskal itzultzaileak

Hurrengo taulan, bestseller gehien itzuli dituzten euskal itzultzaileen zerrenda ikus daiteke. 2. taulan, soilik 2 bestseller baino gehiago euskaratu dituzten itzultzaileak jaso ditugu, nahiz eta guztira 69 itzultzaile agertzen diren gure katalogoan.

ITZULTZAILEAK			
Itzultzailea	Itzulpen kop.	Itzultzailea	Itzulpen kop.
Ametz Santxez Munain	19	Xabier Olarra	3
Miren Arratibel	12	A. Branton de Langlois	2
Koldo Biguri	11	Eva Linazasoro	2
Koro Navarro	10	Garazi Arrula	2
Iñaki Mendiguren	7	Irene Aldasoro	2
Itziar Zabala	4	Jesus Mari Lasa	2
Manu López Gaseni	4	Josune Zuzuarregi	2
Ane Erroteta	3	Mari Eli Ituarte	2
Aztiri itzulpen zerbitzuak	3	Usoa Wyssenbach	2
Fernando Rey	3		

2. taula. Bestsellerren itzultzaileak.

Noizbehinka, liburuak bi pertsonaren edo gehiagoren artean itzuli dira. Kasu horietan, erabaki dugu banaka aztertzea itzultzaile bakoitzak zenbat itzuli duen (nahiz eta beste lankiderekin batekin itzuli). Esaterako, Rick Riordan idazlearen *Labirintoko borroka* Mari Eli Ituartek eta Itziar Zabalak batera itzuli zuten arren, banaka aztertu ditugu itzultzaileak. Elkarlanean itzultzearen fenomeno interesgarria izan daitekeen arren, gure zerrendan jaso ditugun 139

liburuetatik soilik 4 idatzi dira itzultzaile baten baino gehiagoren artean, eta, beraz, ez dugu gai horretan sakonduko.

Bi bestseller baino gehiago itzuli dituzten itzultzaileak 19 dira guztira, eta horietatik oparoenek bildumak itzuli dituzte. Esaterako, Amets Santxezek *Junie B. Jones* bilduma euskaratu du, Miren Arratibelek *Gizajo baten egunkaria*, Koldo Bigurik *Judy Moody* eta *Hegoak* bildumak, Koro Navarrok *Percy Jackson*, *Kanetarren kronikak* eta *Gose jokoak* bildumak, eta Iñaki Mendi-guren *Harry Potter*, guztiak ere HGLko bildumak.

Gure katalogoko datuetatik ere ondoriozta dezakegu, oro har, bilduma bat itzultzen denean itzultzaile bera arduratzen dela bilduma horretako liburuen itzulpenaz, izan jarraipenekoa, izan jarraipenik gabekoa. Salbuespenak ere badaude; esaterako, *Gizajo baten egunkaria* bildumatik 12 liburu ekarri dira euskarara: Miren Arratibelek 9 ekarri ditu; Aritz Branton de Langloisek, 2; eta Antton Olanok, bakarra. Beraz, salbuespen horiek kenduta, ondoriozta dezakegu bilduma baten itzulpena itzultzaile bakar bati esleitu ohi zaiola.

Idazle batzuek bildumarik ez idatzi arren, beren hainbat liburu bestseller izan dira. Aztertu nahi izan dugu idazle horiek itzultzaile bat «esleitu» ote duten. Azterketa honetako datuen arabera, denetik ikusi dugu. Esaterako, Cornelia Funke idazlearen 3 bestseller itzuli dira, eta bakoitza itzultzaile batek euskaratu du. J.K. Rowlingen kasuan, *Harry Potter* bilduma Xabier Mendigurenek ekarri zuen arren, Estibaliz Lizaso arduratu zen *Eserleku butsaren* itzulpenaz. Bestalde, Oliver Jeffersen bi bestsellerrak Garazi Arrulak itzuli zituen, John Greenen beste biak Usoa Wyssenbachek eta Khaled Hosseinirenak Josune Zuzuarregik. Beraz, kasu batzuetan, idazle baten itzulpenak egiteko itzultzaile bera aukeratzea erabakitzen dute argitaletxeek, nahiz eta idazle horren liburu horiek bilduma batekoak ez izan.

Literatur generoari dagokionez, badirudi itzultzaile batzuek badutela genero bereko itzulpenak egiteko joera nabarmenagoa beste batzuek baino, eta hori bereziki HGLan nabari da. Horren adibide gisa, liburu bat baino gehiago itzuli duten itzultzaileen artean, Amets Santxez Munainek, Ane Errotetak, Garazi Arrulak, Itziar Zabalak, Koldo Bigurik, Koro Navarrok eta Manu López Gasenik HGLa itzuli dute soilik, gure katalogoko datuen arabera. Dena den, badakigu idazle horiek gure katalogoan agertzen ez diren beste genero batzuetako liburuak ere idatzi eta itzuli dituztela, baina, kasu honetan, gure datuetara mugatuko gara. Horrez gain, eta bildumak itzuli dituzten itzultzaileak kontuan hartu gabe, Irene Aldasorok eta Xabier Olarrak liburu bat baino gehiago itzuli dute, eta biek itzuli dute narratiba zein saiakera.


Nabarmenezkoa da ez dela kasu guztietan itzultzailearen izena ematen. Esaterako, Aztiri itzulpen zerbitzuak Hervé Tulleten 3 liburu itzuli ditu, eta AEK-ko Kulturgintzak, berriz, Chiamanda Ngozi Adichieren *Guztiok izan beharko genuke feminista*. Kasu horietan, ez dakigu nork egin duen itzulpena.

Azken urteetan lan gehien euskaratu dituzten itzultzaileen zerrenda hartzen badugu (Satrustegi, 2020: 159), eta gure emaitzekin alderatzen badugu, hainbat itzultzaile aurkitzen ditugu bi zerrendetan; besteak beste, Josu Zabaleta, Koro Navarro eta Xabier Olarra. Beraz, itzultzaileen kasuan, bai, badago antzekotasunik gure katalogoaren eta datu orokorren artean.



## Euskal argitaletxeak

Hurrengo taulan, bestseller bat baino gehiago argitaratu duten argitaletxeen grafikoa jaso dugu. Guztira 39 argitaletxe-konbinazio dauden arren, 3. grafikoa, soilik 21 jaso ditugu; bestseller bat baino gehiago argitaratu dituztenak, hain zuzen ere. Argitaletxeak, berez, gutxiago dira, baina, kasu askotan, argitaletxeek elkarrekin argitaratzen dituzte liburuak. Kasu horretan, itzul-tzaileenean ez bezala, interesgarria iruditu zaigu argitaletxe horiek elkarrekin aztertzea, nahiko fenomeno ohikoa baita.



3. grafikoa. Bestsellerrak argitaratu dituzten argitaletxeak.

Bestseller gehien argitaratu dituzten argitaletxeak Alberdania (21), Gero-Mensajero (20) eta Bruño (19) dira. Haien atzetik, Elkar; Salamandra (7) eta Elkar (7) dauzkagu. Bost argitaletxe eta argitaletxe-konbinazio horietatik, lauk bildumak argitaratu dituzte, eta horregatik kokatzen dira zerrendako buruan. Elkar da argitaletxe oparoenen artean bildumarik argitaratu ez duen bakarra. Dena den, Alberdaniak *Gizajo baten egunkaria* bilduma argitaratu duen arren, bilduma horretakoak ez diren beste 8 bestseller argitaratu ditu, Elkarrekin eta Ereinekin batera argitaratu dituen liburuak kontuan hartu gabe.

Aurretik azaldu bezala, noizbehinka, argitaletxeek batera argitaratzen dituzte liburuak. Horren adibide dira Alberdania eta Erein, 4 itzulpen argitaratu baitituzte batera, «Batera Saila» izeneko bildumaren barnean (guztira elkarrekin 9 liburu argitaratu dituzten arren, gure katalogoan 4 agertzen dira soilik). Elkarlanean argitaratzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke; esaterako, ekonomikoak, era horretan produkzioaren kostua murrizten baita bi argitaletxeren artean. Bestalde, «Literatura Unibertsala» bilduman, argitaletxe bikoteak ezarri dira itzulpenak

argitaratzeko; esaterako, Toni Morrisonen *Maitea* Alberdaniak eta Elkarrek argitaratu zuten batera.

Bestsellerren euskarazko itzulpenak argitaratzen dituzten argitaletxe guztiak ez dira Euskal Herrikoak. Horren adibide ditugu Vicens Vives argitaletxea, Bruño, El Andén, Salamandra, Kókinos... Gasenik fenomeno horren berri ematen du bere lanean: «Espainiako enpresen ordezkarietek beren esku dituzten obrak euskaratu dituzte, arrazoi ekonomikoengatik (eskubi-deak berriro ez ordaintzea, eta arrakasta frogatu duten obrak izaten dira)» (Gaseni, 2001: 36). Beraz, badirudi errentagarritasun ekonomikoa dela Espainiako argitaletxeek bestsellerrak euskarara itzultzeko arrazoia, bereziki HGLaren kasuan. Horren adibide izan daiteke *Harry Potter* bildumaren euskarazko itzulpena, Salamandrak eta Elkarrek batera argitaratu baitzuten.

Argitaletxe batek bilduma bateko liburu bat itzultzeko hautua egiten duenean, oro har, bilduma osorik itzultzen saiatzen da jarraipena duten liburuen kasuan. Jarraipenik gabeko bildumetan ere, liburu bat baino gehiago itzuli ohi da. Dena den, kasuren batean, jarraipeneko bildumak erdizka geratu dira; esaterako, Cornelia Funkeren *Tintenherz* bilduma, Christopher Paoliniren *Eragon* eta Aprilynne Piken *Wings*. Hipotesiak baino ez diren arren, izan liteke liburua ez dela espero bezainbeste saldu, edota baita argitaletxeen diru falta ere.

Atal honi «Argitaletxeak» deitu diogun arren, aztertu ditugun bestsellerrak argitaratzeaz arduratu direnak ez dira beti argitaletxe pribatuak izan. Kasu batzuetan, erakunde publiko zein pribatuak ere finantzatzen dituzte itzulpenak (noizbehinka, baita lehiaketa bidez ere). Esaterako, EHUK bi itzulpen argitaratu ditu ZIO bildumaren barnean; Elhuyarrek, Errekaldeko Lagun Arte Kultur Taldeak, Ikasek eta Hik Hasik, bana.

## Ondorioak

Lan honen sarreran adierazi dugu bestsellerren euskarazko itzulpenak hainbat erronkari egin behar diela aurre, eta, zehazki, euskararen egoera, itzulpengintzaren prestigioa eta bestsellerraren kalitatearen auzia nabarmendu ditugu. Jarraian, saiatuko gara erronka horien inguruko ohar batzuk egiten.

Lehenik eta behin, hizkuntzaren beraren auziari lotuta, eta euskara hizkuntza gutxitua dela kontuan izanda, ohikoa da beste hizkuntza gutxitu batzuetako literatura ekarri nahi izatea. Torrealdaik (1997) horren inguruan galdetu zien euskal argitaletxeei, eta honako hau erantzun zuten Ibaizabal eta Pamiela argitaletxeek:

Ibaizabal: «Interesgarria litzateke, bestalde, beste hizkuntza gutxituetako lanak gureganatzen joatea, esaterako katalanetik nahiz galizieratik» (Torrealdaik, 1997: 209).

Pamiela: «Lehentasunezkoa irizten diogu hizkuntza ez hain ezagunetako beste literaturetako testuak euskaratzeari; beraien kultura hurbiltzeko aukera emango digu, gainera. Egiteko dagoen guztiarekin, ez dirudi Benet, Garcia Marquez edo Quevedo, eta are gutxiago Cela eta horrelako salmenta handikoak, itzultzeko premia dagoenik» (*ibid.*).

Kontuan izan behar dugu aipu horiek 1997koak direla eta geroztik nabarmen aldatu dela euskarazko argitalpenen egoera. Argitaletxeen aipu horiekin bat, eta gure datuei erreparatzen badiegu, 2000. urtera bitartean ez dugu inolako joerarik ikusten bestsellerren itzulpenean, eta, askoz jota, bi bestseller itzultzen ziren urteko. Horregatik, pentsa dezakegu argitaletxe gehienek antzeko iritzia zutela salmenta handiko liburuez. Hala ere, bestsellerrak itzultzeko joera pixkanaka aldatuz joan da, eta badirudi 2006. urtean egoera egonkortsu zela, orduetik 7,8 bestseller itzultzen baitira urtean batez beste.

Bigarrenik, adierazi dugu itzulpenaren aurkako aurreiritziak eta prestigioa erronka bat direla. Aurreiritzi horien ondorioz, itzultzailearen figura ezkutuan geratzen da askotan, eta pentsa genezake bestsellerrak idazten dituzten idazle ezagunek are gehiago itzaliko zutela itzultzailearen marka. *Gose jokoak*, *Harry Potter*, *Jende normala* edo *Auschwitzeko tatuatzailea* liburuen azalak bilatuta, ez dugu itzultzaileen izenik ikusi. Aitzitik, komunikabideetan euskaratutako bestsellerren kritikak argitaratzen direnean, itzultzaileen izena aitortzen da maiz.

Itzultzaileen izenaz gain, ohikoa da kritikariek itzulpenaren aldeko oniritzia ere adieraztea. Kritikariek, itzultzailearen presentzia nabarmentzeaz gain, itzulpena normalizatzen ere laguntzen dute. Normalizazio prozesuaren barnean ere garrantzitsua da jakitea nolako den liburu horien harrera, hau da, ea bestsellerren itzulpenak saltzen ote diren, irakurtzen ote diren, eta zein den irakurleen iritzia liburu horiez. Gai horretan sakondu ez dugun arren, interesgarria litzateke euskarara ekarritako bestsellerren harrera sakonago aztertzea etorkizunean.

Amaitzeko, euskaratutako bestsellerren auziari helduko diogu, hori baita lan honen aztergai nagusia. Azaldu dugu egon daitezkeela bestsellerrak euskarara ekartzearen aurkako arrazoiak. Lehenik eta behin, aurreiritziak oraindik ez dira desagertu, eta irakurle askok erabakitzen dute liburuak gaztelaniaz irakurtzea, euskarazko itzulpenak ulertzen zailak omen direlako. Horrez gain, irakurle askok bestsellerren aurkako iritziak dituzte, eta ez dute salmenta handiko liburuekiko inolako interesik. Arrazoi ekonomikoa ere izan daiteke oztopo bat bestsellerrak euskarara ekartzeko; izan ere, pentsa liteke J.K. Rowlingen liburuen egile-eskubideak hizkuntza gutxitu batean idatzitako liburu baten eskubideak baino askoz garestiagoak izango direla. Arrazoi arazo, argitaletxeek estrategiak bilatzen dituzte, eta hortik sortu da, esaterako, Batera Saila bilduma.

Edonola ere, argi ikusi dugu euskaratutako bestsellerren artean HGLa dela genero nagusia, eta, ondorioz, pentsa genezake literatur sistema hezkuntza sistemaren menpeko izan daitezkeela neurri batean. HGLaren eta HLaren arteko aldea oso nabarmena da, eta horrek esan nahi lezake helduentzako bestsellerra euskaratzea ez dela horren errentagarria, hau da, ez duela guztiz funtzionatzen.

Laburbilduz, eta oztopoak oztopo, badirudi bestseller fenomeno iritsi dela euskal literatur sistemara ere, eta badirudi argitaletxeek mundu mailan entzute handia duten liburuak euskaratzeko apustua egin dutela. Orain arte, klasikoen eta bestelako literatura kanonikoaren itzulpenak garrantzi handia izan du, eta, adibidez, Literatura Unibertsala bilduma arduratu da jardun horretaz. Hutsune horiek bete ondoren, badirudi argitaletxeak nazioartean arrakasta handia

duen liburuak euskarara ekartzen ari direla gaur egun. Ondorio hauetan aipatu dugun bezala, interesgarria izango litzateke etorkizunean aztertzea nolakoa den euskaratutako bestsellerren harrera eta, zehazki, zenbat irakurle dituzten liburu horiek.

## BIBLIOGRAFIA

LOPEZ GASENI, M. (2009). «Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)», Senez: itzulpen aldizkaria, 37, 299-311.

NOR DA NOR. <<http://nordanor.eus>> [Azken kontsulta: martxoaren 9an].

SATRUSTEGI ANDRÉS, I. (2020). «Euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa (2008-2018)», Senez: itzulpen aldizkaria, 51, 149-173.

THE NEW YORK TIMES. *Best sellers*. <<https://www.nytimes.com/books/best-sellers/>> [azken kontsulta: martxoaren 9an].

THE NEW YORK TIMES. *About the Best Sellers*. <https://www.nytimes.com/books/bestsellers/methodology/> [azken kontsulta: maiatzaren 12an].

TORREALDAI, J.M. (1997): *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren Mundua*. Donostia: Jakin.

**ERANSKINA:** euskarara itzultako bestsellerren katalogoa

Jatorrizkoa	Itzulpena	J. Egilea	Izultzailea	H. Argitaletxea	Generoa	Bestseller-data	J. Data	H. Data	Biduma
A brief history of time	Denboraren historia laburra: big bang-etik z	Stephen Hawking	Joan Ignazio Abrisk	Galaik	Saiera	1990/11/7	1988	1995	
A short story of the world	La denaren historia labur bat	Bill Bryson	Ixiar Iza	Elhuyar	Saiera	2003/5/25	2003	2009	
A thousand splendid suns	Mila eguzki eder	Khaled Hosseini	Josune Zuzuarregi	Ei anden	HL	2007/7/10	2007	2008	
Alice's adventures in Wonderland	Aliza herrialde harrigarrian	Lewis Carroll	Cruz Mujika Arbuz	Hordago; lur	HGL	2010/2/21	1865	1979	
Alice's adventures in Wonderland	Alizaren abenturak herrialde miresgarrian	Lewis Carroll	Manu López Gaseni	Pamela (Mila gau)	HGL	2010/2/21	1865	2015	
An Anthropologist on Mars	Antropologo bat Marten	Oliver Sacks	Manu López Gaseni	Pamela (Mila gau)	HGL	1995/3/19	1995	2003	
Atoneant	Haize-ordaina	Ian McEwan	Xabier Olarra	EHU (ZIO bilduma)	Saiera	2002/3/31	2001	2012	
Beloved	Maitea	Toni Morrison	Anton Garikano	Igele	HL	2019/8/25	1987	2004	
Catching fire	Dena sudan	Suzanne Collins	Koro Navarro	Aberdania; Elkar (literatura unibe	HGL	2009/9/20	2009	2010	Jarraipenakoa
Charlie and the chocolate factory	Charlie eta txokolate fabrika	Road Dahl	Juan Mari Sarasola	Aberdania; Erein	HGL	2005/7/10	1964	1989	
Coraline	Coraline	Neil Gaiman	Julen Gabiria	Descicé de brouwer	HGL	2002/7/21	2002	2019	
Couleurs	Koloreak	Hervé Tullet	Elkar	Txartalo	HGL	2014/10/5	2014	2015	Jarraipenak gabea
Dad by my Side	Atarekin nagusean	Soosh	Arrate Hidalgo	Mimis	HGL	2018/7/1	2018	2019	
Diary of a Wimpy Kid	Gizajo baten egunkaria	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL	2008/6/8	2007	2010	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : Cabin Fever	Gizajo baten egunkaria; Etxean ixila	Jeff Kinney	Antz Branton de la	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2011	2016	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : Dog Days	Gizajo baten egunkaria : Egun zakurrak	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2009	2012	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : Double Down	Gizajo baten egunkaria : Dena ala ezer ez	Jeff Kinney	Anton Olano	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2013	2019	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : Hard Luck	Gizajo baten egunkaria : Suerte berra	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2016	2017	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : Old School	Gizajo baten egunkaria : Eskola zaharra	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2015	2018	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : Rodrick Rules	Gizajo baten egunkaria : Rodrick-en legea	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2008	2011	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : The Getaway	Gizajo baten egunkaria : Hesakdia	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2017	2020	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : The Last Straw	Gizajo baten egunkaria : Hauze bestenki ez n	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2009	2012	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : The Long Haul	Gizajo baten egunkaria : Txango zorca	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2014	2017	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : The Third Wheel	Gizajo baten egunkaria : Bikotean Hiru	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2012	2016	Jarraipenak gabea
Diary of a Wimpy Kid : The Ugly Truth	Gizajo baten egunkaria : Egia gordina	Jeff Kinney	Antz Branton de la	Aberdania (Greg Hefferyren egune	HGL		2010	2014	Jarraipenak gabea
Diary of an Awesome Friendly Kid	Rowley naiz. Mutiko superatortza; eta hau d	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Aberdania	HGL	2019/1/5	2019	2019	Jarraipenak gabea
Dream big little pig!	Izan amets handi lili txiki	Kristi Yamaguchi	Itziar Zabala	Elkar	HGL	2011/4/3	2011	2012	
El general en su laboratorio	Jenerala bere laborintean	G. Garcia Márquez	Xabier Mendiguren	Gero, Mensajero	HL	1991/1/6	1989	1990	
El principe de la niebla	Lanbro arteko printzea	Carlos Ruiz Zafón	Fauzin Urrutibeask	Edebié-Gitza	HGL	2010/5/23	1993	1997	
Eragon	Eragon	Christopher Paolini	Fernando Morillo	Elkar	HGL	2003/9/14	2002	2006	
Harry Potter and the chamber of secrets	Harry Potter eta sekretuen ganbera	J.K. Rowling	Itziar Mendiguren	Elkar; Salamandra	HGL	1999/6/20	1998	2001	Jarraipenakoa
Harry Potter and the deathly halows	Harry Potter eta herioaren erliak	J.K. Rowling	Itziar Mendiguren	Elkar; Salamandra	HGL		2007	2008	Jarraipenakoa
Harry Potter and the goblet of fire	Harry Potter eta suaren kopa	J.K. Rowling	Itziar Mendiguren	Elkar; Salamandra	HGL	2000/7/23	2000	2002	Jarraipenakoa
Harry Potter and the Half-Blood Prince	Harry Potter eta Odol Nahasko Printzea	J.K. Rowling	Itziar Mendiguren	Elkar; Salamandra	HGL	2003/7/13	2003	2007	Jarraipenakoa
Harry Potter and the Order of the Phoenix	Harry Potter eta Fenixaren Ordena	J.K. Rowling	Itziar Mendiguren	Elkar; Salamandra	HGL	2003/7/13	2003	2004	Jarraipenakoa
Harry Potter and the Philosopher's Stone	Harry Potter eta sorgin harria	J.K. Rowling	Itziar Mendiguren	Elkar; Salamandra	HGL	1998/12/27	1997	2000	Jarraipenakoa
Harry Potter and the Prisoner of Azkaban	Harry Potter eta Azkabango preso	J.K. Rowling	Itziar Mendiguren	Elkar; Salamandra	HGL	1999/9/26	1999	2001	Jarraipenakoa
Here we are: Notes for Living on Planet Earth	Hona gu hemen: lur planetan bitzeteko ohar	Oliver Jeffers	Garazi Arrula	Txalaparta; OQO (TXOI bilduma)	HGL	2017/12/3	2017	2020	
Herr der diebe	Lapuraren burua	Cornelia Funke	Pedro Martin Zabai	Elkar	HGL	2002/9/22	2000	2004	
Het Achterhuis	Het Franken egunkaria	Anne Frank	Josu Zabaleta	Erein	HL	1995/4/2	1959	2004	
Hey Granddude!	Antonaren iparrorratz magikoa	Paul McCartney	Amets Samschez Mun	Bruño	HGL	2019/9/22	2019	2020	
How I Became a Pirate	Pirata izan nintzenekoa	Melinda Long	Manu López Gaseni	Vicens lyses	HGL	2003/9/28	2003	2013	
Indapaton	Sumiez	Philip Roth	Naoré Tolosa	Meetok	HL	2008/10/5	2008	2009	
Is there really a human race?	Hau al da benetakoa giza bidea?	Jamie Lee Curtis	Inazio Mujika Irala	Aberdania	HGL	2006/10/22	2006	2007	Jarraipenak gabea
Judy Moody around the world 6½ days	Judy Moody munduari itzulia zortzi egun eta	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2005	2007	Jarraipenak gabea
Judy Moody Declares Independence	Judy Moody bere buruaren jabe	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2005	2007	Jarraipenak gabea
Judy Moody Gets Famous!	Judy Moody ospetsua egiten da!	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2001	2009	Jarraipenak gabea
Judy Moody Goes to College	Judy Moody unibertsitatera doa	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2008	2009	Jarraipenak gabea
Judy Moody Predicts the Future	Judy Moody etorkizun igarlea	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2003	2008	Jarraipenak gabea
Judy Moody Saves the World!	Judy Moody luraren salbatzailea	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2002	2006	Jarraipenak gabea
Judy Moody was in a mood	Judy Moody oso umore baxrean dago. oso-os	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2000	2006	Jarraipenak gabea

Jatorrizkoa	Itzulpena	J. Egilea	Itzultzailea	H. Argitaletxea	Generoa	Bestseller- data	J. Data	H. Biduma
Junie B. Jones and a little Monkey Business	Junie B. Jones eta animalaxo moñoiña	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1993	2012
Junie B. Jones and Her Big Fat Mouth	Junie B. Jones, ahoberoa	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1993	2013
Junie B. Jones and Some Sneaky Pecky	Spy! Junie B. Jones, zelaier!	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1994	2014
Junie B. Jones and That Meanie Jim's Birth	Junie B. Jones eta Jim gaitzoaren urtebetetz	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1996	2016
Junie B. Jones and the Mushy Gushy Valent	Junie B. Jones eta miresle sekretua	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1999	2013
Junie B. Jones and the Stupid Smelly Bus	Junie B. Jones eta autobus kirasduna	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1992	2012
Junie B. Jones has a Monster Under Her Bed	Junie B. Jones eta ohe azpiko munstroa	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1997	2013
Junie B. Jones has a peep in her pocket	Junie B. Jones abelelekean	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		2000	2016
Junie B. Jones Is (Almost) a Flower Girl	Junie B. Jones, ohozezko dama izango da (aig)	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1999	2014
Junie B. Jones Is a Beauty Shop Guy	Junie B. Jones, ile-apaintzaile	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1998	2013
Junie B. Jones Is a Graduation Girl	Junie B. Jones eta urte amaierako festa	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL	2001/6/3	1997	2014
Junie B. Jones Is a Party Animal	Junie B. Jones eta pilama festa	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1997	2014
Junie B. Jones Is Not a Crook	Junie B. Jones, ez da lapurra	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1996	2013
Junie B. Jones Loves Handsome Warren	Junie B. Jones eta Warren ederra	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1997	2012
Junie B. Jones smells something fishy	Junie B. Jones maskota bila	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		1998	2015
Junie B. Jones, Is Captain Field Day	Junie B. Jones, ikasgiako kapitaina	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		2001	2013
Junie B., first grader (at last)	Junie B. Jones lehen mailan (atikenean)	Barbara Park	Ametz Santxex Mun	Bruño	HGL		2001	2017
L'amica geniale	Adiskide paregabea	Elena Ferrante	Fernando Rey	Igela (Mintaka bilduma)	HL	2015/9/20	2011	2015
Le Journal de Ziaeta	Ziataren egunkaria	Ziaeta Filipovic	Koldo Biguri	Desciè de Brouwer	HGL	1994/3/20	1993	1994
Le Petit Prince	Printze bilka	Antoine de Saint-Exupér	Pakzi Zubizarreta	Elkar, Salamandra	HGL	2000/7/23	1951	2001
Le Petit Prince	Printze bilka	Antoine de Saint-Exupér	Benito Otazua	Errekaldeko Lagun Arte Kultur Talde	HGL	2000/7/23	1951	1998
Le Petit Prince	Printze bilka	Antoine de Saint-Exupér	Xabador Garmendi	Plan	HGL	2000/7/23	1951	1970
Le Petit Prince	Printze bilka	Antoine de Saint-Exupér	Iraitz Urkulo	Susaeata	HGL	2000/7/23	1951	2014
Le Petit Prince	Printze bilka	Antoine de Saint-Exupér	Iñaki Sijuri	Txertoa	HGL	2000/7/23	1951	1985
Long Walk to Freedom	Urte luinak (jatorrizkoaren atal bat)	Nelson Mandela	Ekatz Sivrent	Ataramifne	HL	1995/1/22	1994	2013
Longitude	Longitudea	Dava Sobel	Irene Aldasoro	EHU (ZD0 bilduma)	Saiakera	2010/9/12	2010	2011
Mockingjay	Eskinoso sekakera	Suzanne Collins	Koro Navarro	Alberdania; Erein	HGL	2010/9/12	2010	2011
Molly Moon stops the world	Molly Moon mundua geldiarazten du	Molly Gyring	Jesus Mari Lasa	Erein	HGL	2003	2009	Jarraipeneko gabekoa
Molly Moon's incredible book hypnotism	Molly Moon eta hipnotismoko liburu mirarga	Georgia Byng	Jesus Mari Lasa	Erein	HGL	2004/5/9	2004	2006
Monster high	Monster high	Lisi Harrison	Iraiz Zabala	Gero, Mensajero	HGL	2010/9/19	2010	2010
My dad	Nire aita	Anthony Browne	Ane Errota	Hiria (Haurren aurrenak bilduma)	HGL	2001/7/1	2000	2005
Normal People	Jende normala	Sally Rooney	Irene Aldasoro	Alberdania	HL	2019/5/5	2018	2020
Not a box	Ez da kaxa bat	Antoinette Portis	Eva Unzuasoro	Pamiels; Kalandraka	HGL	2007/4/15	2006	2017
Olivia	Olivia	Ian Falconer	Ane Errota	Hiria (Haurren aurrenak bilduma)	HGL	2000/10/22	2000	2004
Olivia saves the circus	Olivia bere zirkoan	Ian Falconer	Ane Errota	Hiria (Haurren aurrenak bilduma)	HGL	2001/10/14	1994	2004
On Jouer?	Jostoluko al gara?	Hervé Tullet	Aztri Itz ulpen zer-bit	Tartatlo	HGL	2016/4/17	2011	2016
Peter Pan in Scarlet	Peter Pan eta jakia eskariata	Geraldine McCaughrean	Xabier Paya	Zubia	HGL	2006/10/22	2006	2006
Playing in the Dark	Gauko hitzak	Toni Morrison	Iraiz Iriondo	Erein	HL	1992/5/17	1992	1995
Reckless-Steinernes Fleisch	Reckless - Hartziko heragia	Cornelia Funke	Aiora Eka	Elkar	HGL	2010/10/3	2010	2010
Rowley Jefferson's awesome Friendly Ache	Rowley Jefferson superjatorriaren abentura	Jeff Kinney	Miren Arratbel	Alberdania	HGL		2020	2020
Sapiens: A Brief History of Humankind	Sapiens: gizadiaren historia labur bat	Yuval Noah Harari	Xabier Kintana; And	Elkar	Saiakera	2015/3/1	2011	2019
Shit My Dad Says	Ataaren plokerrak	Justin Halperin	Uxue Alberdi	Alberdania	HGL	2010/5/23	2010	2011
Spells	Xarmak	Aphymyne Pike	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL	2010/5/23	2010	2011
Storia del nuovo cognome	Aizen berriaren historia	Elena Ferrante	Fernando Rey	Igela (Mintaka bilduma)	HL	2015/9/20	2012	2016
Storia della bambolina perduta	Pilama marradunaz jantzitako mutikoa	John Boyne	Estibaliz Lizaso	Alberdania	HL	2012/10/14	2012	2012
Suite française	Suite frantsesa	Irène Némirovsky	Mikel Garmendia, J	Alberdania	HL	2006/4/30	2004	2011
Ten little fingers and ten little toes	Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi	Mem Fox	Eva Unzuasoro	Pamiels; Kalandraka	HGL	2008/9/21	2008	2018
The alchemist	Alkimista	Paulo Coelho	Xabier Aramburu	Txalaparra (Ainaur)	HL	2007/10/7	1988	2001
The artist who painted a blue horse	Zaldi urdin bat margotu zuen artista	Rick Carré	Manu López Gasseni	Pamiels; Kalandraka	HGL	2011/10/23	2011	2012
The battle of the labyrinth	Labrintoko borroka	Erick Riordan	Mari Eli Iruarte; Itzi	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL	2008/11/23	2006	2006
The boy in the striped pyjamas	Pilama marradunaz jantzitako mutikoa	John Boyne	Mirentxu Larrañaga	Alberdania	HL	2012/10/14	2012	2012
The casual vacancy	Eserleku hutsa	J.K. Rowling	Estibaliz Lizaso	Alberdania	HL	2009/5/3	2009	2013
The curious garden	Lorategi biza	Peter Brown	Iñakiz Eiseñar	Tartatlo	HGL	2003/8/17	2003	2006
The Curious Incident of the Dog in the Night	Xakurrari gauetan gertatutako istripu bixia	Mark Haddon	Xabier Olarra	Igela	HL	2012/1/29	2012	2018
The Fault in Our Stars	Izarzak errudun	John Green	Usua Wyssenbach	Alai (Ganbara)	HGL	2012/10/21	1993	2001
The giver	Onnen ematea	Lois Lowry	Mari Jose kerejeta	Aktori	HGL			

Jatorrizkoa	Itzulpena	J. Egilea	Itzultzailea	H. Argitaletxea	Generoa	Bestseller-data	J. Data	H. Data	Biduma
The Hunger Games	Gose jokoak	Suzanne Collins	Koro Navarro	Alberdania, Frein	HGL	2008/9/28	2008	2009	Jarrailpenekoa
The kite runner	Kometa ehizatza	Khaled Hossieni	Josune Zuzuarregi	Nasa	HL	2014/9/14	2003	2008	
The last olympian	Olinpoko azken heroi	Rick Riordan	Mari Eli Ituarte: Itzi	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL	2009	2016		Jarrailpenekoa
The lightning thief	Tximistaren lapurra	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL	2008/6/9	2005	2013	Jarrailpenekoa
The Perks of Being a Wallflower	Bazterrekoa izatearen alde onak	Stephen Chbosky	Alex Audekoa-Otalo	Alai (Ganbara)	HGL	2012/6/24	1999	2020	
The red pyramid	Piramide gorria	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (kanetaarren kron)	HGL	2010/5/23	2010	2011	Jarrailpenekoa
The Sea of Monsters	Munstroen itsasoa	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL	2006	2013		Jarrailpenekoa
The serpent's shadow	Sugearen itzala	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (kanetaarren kron)	HGL	2012/5/20	2012	2013	Jarrailpenekoa
The tattooist of Auschwitz	Auschwitzeko tatuatzailea	Heather Morris	Miel Angel Elustond	Alberdania	HGL	2018/9/23	2018	2019	
The Throne of Fire	Suzko tronua	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (kanetaarren kron)	HGL	2011/5/22	2011	2012	Jarrailpenekoa
The tiger's wife	Tigrearen emaztea	Tea Obrecht	Miren Arratibel	Frein	HL	2011/3/27	2011	2012	
The Titan's curse	Titanaren maldizioa	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL	2007	2014		Jarrailpenekoa
The very hungry caterpillar	Beldar gosetia	Eric Carle	Xan Arrotabehera	Ikas	HGL	2009/4/5	1969	2006	
The very hungry caterpillar	Beldar txiki jatu	Eric Carle	Miren Iqur Meabe	Kokinok	HGL	2009/4/5	1969	2011	
The very hungry caterpillar	Gose handiko beldarra	Eric Carle	Koldo Izagirre	Pantelisi, Kalandraka	HGL	2009/4/5	1969	2007	
The Wolves in the Walls	Osoako hormetan	Neil Gaiman	Joxe Rojas	Asiberri	HGL	2003/8/24	2003	2004	
The Wonderful Wizard of Oz	Oz-eko aztz harrigarria	L. Frank Baum	Juan Cruz Igerabide	Denonartean	HGL	2000/12/3	1900	2015	
The Wonderful Wizard of Oz	Oz-ko magoa	L. Frank Baum	Juan Mari Arzallus	Hordago; Lur	HGL	2000/12/3	1900	1981	
Tintinhez	Tinta-bihotz	Cornelia Funke	Naroa Zubillaga	Ellar	HGL	2003/10/26	2003	2009	
Turtles all the way down	Kiribil amaigabea	John Green	Iscoa Wysesnbach	Alai (Ganbara)	HGL	2017/10/29	2017	2019	
Un livre	Liburu bat	Hervé Tullet	Aitri Itzupen zerbit	Ttartaio	HGL	2011/5/8	2010	2012	Jarrailpenik gabekoa
War Horse	Gerrako zaldia	Michael Morpurgo	Koro Navarro	Alberdania, Frein	HGL	2015/11/27	1982	2012	
We should all be feminists	Guztokia izan beharko genuke feminista	Chimamanda Ngozi Adichie	Kulturgingintza (AEK)	Xangorin-Hik Hasi	Saiakera	2020/12/20	2014	2017	
What we'll Build	Badugu zer eraiki	Oliver Jeffers	Garazi Arrula	Txalparta; OQO (TXOI bilduma)	HGL	2020/10/25	2020	2020	
Wings	Hegoak	Aprilynne Pike	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL	2009/5/24	2009	2010	Jarrailpenekoa
Wonder	Wonder, mutiko miragarria	R. J. Palacio	Jose Hualde	Denonartean	HGL	2012/3/18	2012	2019	
Wonderful Life: The Burgess Shale eta histori	Bai bizi zoragarria: Burgess Shale eta histori	Stephen Jay Gould	Jose Ramon Etxeha	Gaia (Pentsamendu garaikidea)	Saiakera	1990/1/14	1989	2000	
Zero K	Zero K	Don DeLillo	Aritz Gorrotxategi	Meetok	HL	2016/5/22	2016	2016	

### Resumen

El objetivo del siguiente trabajo es analizar la situación de los *best sellers* traducidos al euskera. En primer lugar, hemos creado un catálogo de los *best sellers* que se han traducido al euskera durante los últimos años y, para ello, nos hemos basado en la lista semanal de *best sellers* del diario estadounidense *The New York Times*, desde 1990 hasta 2020. Una vez recopilados los datos, los hemos interpretado; en concreto, nos hemos centrado en el desarrollo cronológico de los *best sellers* traducidos, en su género literario, en los autores de los originales, en los traductores, y en las editoriales que han publicado dichas traducciones. Además de ello, partiendo de los resultados de la investigación, hemos realizado unas observaciones sobre la presencia de los *best sellers* traducidos dentro del sistema literario vasco.

### Résumé

L'objectif de cet article est d'établir l'état des lieux des best-sellers traduits vers le basque. Tout d'abord, nous avons créé un catalogue des best-sellers traduits vers le basque durant les dernières années, en se basant sur la liste des best-sellers que le journal américain *The New York Times* a publié de façon hebdomadaire de 1990 à 2020. Une fois les données collectées, nous les avons interprétées ; plus précisément, nous nous sommes concentrés sur l'évolution chronologique des best-sellers traduits, sur leur genre littéraire, sur les auteurs des textes originaux, sur les traducteurs et sur les éditeurs qui ont publié les traductions. En outre, à partir des résultats de cette étude, nous avons fait quelques observations sur la présence des best-sellers traduits au sein du système littéraire basque.

### Abstract

The aim of this work is to analyze the situation of bestsellers translated into Basque. First and foremost, we had to create a catalog of the bestsellers that have been translated into Basque over the last few years, based on the list of bestsellers published weekly in the US newspaper *The New York Times*, from 1990 to 2020. After compiling the data, we interpreted the results yielded by that list; specifically, we focused on the chronological development of the translated bestsellers, their literary genre, the authors of the original versions, the translators, and the publishing houses that published the translations. In addition, taking our results into account, we make some observations about the presence of translated bestsellers in the Basque literary system.